

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO
XEDAPEN OROKORRAK

1

DISPOSICIONES GENERALES DEL
TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

DIPUTATU NAGUSIA

1/2022 Foru Araua, martxoaren 10ekoa, 2022. urterako zenbait zerga aldaketa onesten dituen.

GIPUZKOAKO DIPUTATU NAGUSIAK

Jakinarazten dut Gipuzkoako Batzar Nagusiek onetsi dutela «1/2022 Foru Araua, martxoaren 10ekoa, 2022. urterako zenbait zerga aldaketa onesten dituen»; eta nik aldarrikatu eta argitara dadin agintzen dut, aplikagarria zaien herritar guztiek, partikularrek nahiz agintariek, bete eta betearazi dezaten.

Donostia, 2022ko martxoaren 10a.—Markel Olano Arrese, Gipuzkoako diputatu nagusia. (1460)

HITZAURREA

COVID-19aren pandemiak markatuta egon den bi urteko epealdiaren ondoren, zeinean larrialdiko zerga neurriak hartu baitira pandemiaren ondorioak ahal den neurrian murrizteko, ohartu gara haren intzidentzia jaitsi izana egoera sozioekonomikoa egonkortzea ahalbidetzen ari dela, eta nolabaiteko suspertze ekonomikoa ere ekartzen ari da sektore jakin batzuetan.

Fase berri honetan, botere publikoei dagokie egonkortasun hori etorkizunari begira bultzatzen eta finkatzen saiatzea, lurralde historikoaren produktio ehunari oinarri sendoak eskainiz eta haren garapena maila teknologiko eta balio erantsi handiko eremuetara bideratuz, Gipuzkoako gizartearen etorkizuneko ongizatea ziurtatzearen. Horretarako, interesgarria da azken bi urteotan onetsi diren aldi baterako neurrietako batzuk beste urtebetez aplikatzen jarraitzea, osorik edo zati batean, eta, aldi berean, neurri berritzaileak sartzeko beste arlo batzuetan.

Horrela, foru arau honek hainbat aldaketa sartzeko Gipuzkoako tributuen esparruko figura askotan, eta horien artean nabarmentzekoak dira jarraian azaltzen diren hauek.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan, arauan berariaz jasotzen da dagoeneko existitzen den errealitate bat, alegia, errentak esleitzeko araubidean dauden entitateak zergapekotzat hartzen direla informazio betebeharrak jakin batzuei dagokienez.

Lanaren etekin osoen erregulazioaren barruan, jasota geratzen da urriaren 14ko 33/2014 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduak 14. artikuluko 5. apartatua egiten zuen aurreikuspena, hain zuzen ere, EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren urriaren 14ko 367/2021 epaiak baliogabetu zuena, zergaren foru arauak aurreikuspen hori estaltzen ez duelako. Bestalde, 2. apartatutik 1. apartatura aldatzen da zerga oinarria murrizten duten zenbait errenta eta kontribuzio enpresarial osoa-osorik konputatzeari buruzko erregulazioa.

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

DIPUTADO GENERAL

Norma Foral 1/2022, de 10 de marzo, por la que se aprueban determinadas modificaciones tributarias para el año 2022.

EL DIPUTADO GENERAL DE GIPUZKOA

Hago saber que las Juntas Generales de Gipuzkoa han aprobado y yo promulgo y ordeno la publicación de la siguiente «Norma Foral 1/2022, de 10 de marzo, por la que se aprueban determinadas modificaciones tributarias para el año 2022», a los efectos de que todos los ciudadanos y ciudadanas, particulares y autoridades a quienes sea de aplicación, la guarden y hagan guardarla.

San Sebastián, a 10 de marzo de 2022.—El diputado general de Gipuzkoa, Markel Olano Arrese. (1460)

PREÁMBULO

Tras un periodo de dos años marcado por la pandemia del COVID-19, en el que se han venido adoptando medidas tributarias de emergencia para reducir en lo posible la incidencia derivada de la misma, la remisión de su incidencia está posibilitando la estabilización de la situación socioeconómica e, incluso, un cierto repunte económico en determinados sectores.

En esta nueva fase, corresponde a los poderes públicos tratar de impulsar y consolidar de cara al futuro dicha estabilización, dotando de bases sólidas al tejido productivo del Territorio Histórico y orientando su desarrollo a campos de alto nivel tecnológico y valor añadido, que permitan asegurar el bienestar futuro de la sociedad guipuzcoana. Para ello, resulta de interés continuar aplicando, total o parcialmente, y durante un año más, algunas de las medidas temporales que se han aprobado en estos últimos dos años, al mismo tiempo que se introducen medidas innovadoras en otras materias.

De esta manera, la presente norma foral introduce modificaciones en muchas de las figuras impositivas del marco tributario guipuzcoano, entre las cuales cabe destacar las que se exponen a continuación.

En el impuesto sobre la renta de las personas físicas, se recoge expresamente en la norma una realidad ya existente, como es la consideración de las entidades en régimen de atribución de rentas como obligadas tributarias respecto a determinadas obligaciones de información.

En la regulación de los rendimientos íntegros del trabajo, se incorpora la previsión que se contenía en el apartado 5 del artículo 14 del Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas aprobado por el Decreto Foral 33/2014, de 14 de octubre, que ha sido anulada por el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en su sentencia 367/2021, de 14 de octubre, por falta de cobertura de dicha previsión en la norma foral del impuesto. Por otra parte, se traslada del apartado 2 al apartado 1 la regulación relativa a que determinadas rentas y las contribuciones empresariales imputadas que reduzcan la base imponible se computan en su totalidad.

Kapital higigarriaren etekinen tributazioari dagokionez, bi aldaketa sartzen dira: lehenengoa akzio edo partaidetzen jaulkipen primaren banaketatik datozen etekinei dagokie eta idazketa hobetu eta haren interpretazioa argitzeko egiten da; izan ere, zehazten da ezen jaulkipen primaren banaketaren ondorioz lortzen den zenbatekoak gutxitu egingo duela, deuseztatu arte, akzio edo partaidetza bakoitzak banaka hartuta duen eskurapen balioa; horrek esan nahi du kalkulua ez dela egin behar akzio edo partaidetza horien eskurapen balio osoaren gaineko konputu globala kontuan hartuta. Bigarren aldaketaren kasuan, helburua da izaera itxiko inbertsio entitate jakin batzuetatik jasotzen diren eskubide ekonomiko berezien tributazioa argiago eta zabalago arautzea.

Ondare irabaziei dagokienez, berariaz xedatzen da gauza er-kidea zatitzen denean, ondasun erkidegoak desagiten direnean edo erkideak banantzen direnean, ondarearen osaera aldatu egingo dela alderdietako batek bere partaidetza kuotari dagokiona baino balio handiagoan esleitzen dizkionean bere buruari ondasunak edo eskubideak, izan beste alderdiari konpentsazio bat emanez, izan inolako konpentsaziorik ordaindu gabe. Hori berdin aplikatuko da, zirkunstantzia berberen aurrean, irabazpidezko sozietatea edo ondasunen foru komunikazioa desagiten denean edo ondasunetan parte hartzeko ondare eta ekonomia araubidea azkentzen denean, bai eta administratiboki eratutako izateko bikoteen ondare eta ekonomia araubidea azkentzean ere, baldin eta ondare eta ekonomia araubide gisa aurrekoetako edozein itundu badute.

Era berean, akzio edo partaidetzen kostu gabeko «inter vivos» eskualdaketak ezkontidearen, izatezko bikotekidearen, aurreko ahaideen edo adoptatzaileen, edo ondorengo ahaideen edo adoptatuen alde egiten diren kasuetan, aldatu egiten da ondare irabazi edo galera bat halakotzat ez hartzeko tratamendua, akzioak edo partaidetak jarduera ekonomikoa garatzeko beharrezkotzat diren erabakitzeari begira.

Lekualdatutako pertsonen araubide berezia zabaldu egiten da, eta, horrela, atzerritik Gipuzkoara lekualdatutako pertsonak haren eremu subjektiboan sartzen dira, etortzeko bi arrazoi berri hauek ere gertatzen direnean: sorrera berriko entitate berritzaile bat sortu eta haietan inbertitzea, eta arrisku kapitaleko sozietateak edo funtsak eratzea. Lehenengo kasuan, araubide bereziaren aldeko hautua egin ahal izateko, entitate berritzailea eratuz edo haren akzioak edo partaidetak lehen merkaturatuz eskuratuz egin behar da inbertsioa, eta, beste baldintza batzuen artean, lekualdatutako pertsonak lan harreman bat, edo kontseilari edo administratzaile bati dagokiona, eduki behar du entitate horrekin. Bigarren kasuan, lekualdatutako pertsonak arrisku kapitaleko sozietate edo funts bat eratu behar du, eta langile edo goi zuzendaritzako kide izan behar du eratutako arrisku kapitaleko funtsa kudeatzen duen inbertsio entitate itxien sozietate kudeatzailean edo eratutako arrisku kapitaleko sozietatean bertan, sozietate horrek sozietate kudeatzaile gisa jarduten duenean.

Horrez gain, lekualdatutako pertsonak egindako lan bereziki kualifikatuak erlazionatzeko jardueren katalogoa zabaltzen da, haren barruan hiru hauek sartzeko: antolaketa jarduerak, gereztiak eta kontrol ekonomiko-finantzariokoak.

Lan etekinen kasuan, aldatu egiten da exijigarriak diren zergaldietan jasotzen ez diren lan etekinak denboran egozteko erregela berezia. Izan ere, gaur egun, erregela horrek dio etekin horiek zergaldi horiei egozteko autolikidazio osagarriak aurkeztu behar direla. Arauketa berriak etekinak kobrantza egiten den zergaldiari egozte aurrekustuen du lehen-lehenik, baina etekin horiek exijigarriak ziren zergaldiei egozteko aukera ematen dio zergadunari. Etekinak exijigarriak ziren zergaldiei egozteko aukera hori kobrantzako zergaldiari dagokion autolikidazioa aurkeztean egin beharreko aukeren artean sartzen da.

En referencia a la tributación de los rendimientos de capital mobiliario se realizan dos modificaciones: la primera afecta a los rendimientos provenientes de la distribución de la prima de emisión de acciones o participaciones, y se realiza al objeto de precisar la redacción y clarificar su interpretación, se matiza que el importe obtenido como consecuencia de la mencionada distribución de la prima de emisión minorará hasta su anulación el valor de adquisición de cada una de las acciones o participaciones afectadas, individualmente consideradas, de manera que el cálculo no debe realizarse teniendo en cuenta el cómputo global sobre el valor total de adquisición de dichas acciones o participaciones. La segunda regula de una manera más amplia y clara la tributación de los derechos económicos de carácter especial percibidos de determinadas entidades de inversión de tipo cerrado.

En el ámbito de las ganancias patrimoniales, se dispone expresamente que en los supuestos de división de la cosa común, en la disolución de comunidades de bienes o en los casos de separación de comuneros, existirá alteración en la composición del patrimonio cuando una de las partes se atribuya bienes o derechos por un valor superior al correspondiente a su cuota previa de participación, tanto si compensa a la otra parte como si no abona ninguna compensación. Esto mismo resultará de aplicación, ante las mismas circunstancias, en la disolución de la sociedad de gananciales, en la disolución de la comunicación foral de bienes o en la extinción del régimen económico patrimonial de participación, así como en la extinción del régimen económico patrimonial de las parejas de hecho administrativamente constituidas, cuando hayan pactado como régimen económico patrimonial cualquiera de los anteriores.

También se modifica el tratamiento de la no consideración de ganancia o pérdida patrimonial en los supuestos de transmisión lucrativa «inter vivos» de acciones o participaciones en favor del o de la cónyuge, pareja de hecho, ascendientes o adoptantes o descendientes o personas adoptadas, para determinar la consideración de activos necesarios para el desarrollo de la actividad económica.

Se extiende el régimen especial de personas desplazadas, al ampliar su ámbito subjetivo a las personas desplazadas desde el extranjero a Gipuzkoa por dos nuevos motivos: primero, para constituir o proceder a realizar una inversión en entidades innovadoras de nueva creación y, segundo, para la constitución de sociedades o fondos de capital riesgo. En el primer caso, para optar al régimen especial la inversión deberá realizarse mediante la constitución de la entidad innovadora o la adquisición de sus acciones o participaciones en el mercado primario y, entre otros requisitos, la persona desplazada deberá tener una vinculación laboral o la propia de una consejera o administradora con dicha entidad. En el segundo caso, la persona desplazada deberá constituir una sociedad o fondo de capital riesgo, debiendo ostentar la condición de trabajadora o alta directiva en la sociedad gestora de entidades de inversión de tipo cerrado que gestiona el fondo de capital riesgo constituido o en la propia sociedad de capital riesgo constituida, cuando la misma actúe como sociedad gestora.

Además, se amplía el catálogo de actividades con las que se deben relacionar los trabajos especialmente cualificados llevados a cabo por la persona desplazada, incluyendo las de organización, gerencia y control económico-financiero.

Se modifica la regla especial de imputación temporal relativa a los rendimientos del trabajo no percibidos en los periodos impositivos en que eran exigibles, que actualmente obliga a su imputación a dichos periodos impositivos mediante la presentación de autoliquidaciones complementarias. La nueva regulación prevé, en primer término, la imputación de los rendimientos al periodo impositivo en que se efectúe el cobro, aunque posibilita que la o el contribuyente opte por imputarlos a los periodos impositivos en que resultaron exigibles. Esta opción por imputar los rendimientos a los periodos impositivos en que fueron exigibles se incluye entre las opciones a ejercitar con la presentación de la autoliquidación correspondiente al periodo impositivo de cobro.

Energia berdearen iturriak bultzatzeko asmoz eta, horrela, klima aldaketari aurre egiten laguntzen saiatzeko, kenkari berri bat ezartzen da zerga honetan, zergadunaren ohiko etxebizitzan eguzki energia elektrikoa hornitzeko egindako inbertsioengatik. Zehazki, bi motatako inbertsioak izango dira kengarriak: eguzki energia elektriko fotovoltaikoa ekoizteko balio duten elementu osoen eskurapenean egindakoak, eta eguzki energia elektriko fotovoltaikoko iturriak aprobetxatzea xede sozial nagusia duten entitateetako partaidetzak eskuratzeko egindakoak, betiere zergadunaren ohiko etxebizitza energiaz hornitzeko egiten direnean. Kenkaria egindako inbertsioen 100eko 15ekoa izango da, eta zergadun bakoitzak hurrengo zergaldietan zehar aplikatzen dituen kenkariaren batura ezin izango da 3.000 eurotik gorakoa izan.

Aldaketak sartzen dira ondasun entregak eta zerbitzu prestazioak dokumentatzen dituzten fitxategien osotasuna, Kontserbazioa, trazabilitatea, bortxaezintasuna eta bidalketa bermatzea helburu duen sistema informatiko baten ezarpena sustatzeko kenkariaren erregulazioan, TicketBAI betebeharraren ezarpen egutegia aldatzen duen eta erretiroa hartzeko adinetik hurbil dauden pertsona fisiko jakin batzuk hura betetzetik salbuesten dituen azaroren 9ko 608/2021 Foru Aginduak ezarpen egutegian egin duen aldaketara egokitzeak. Kenkari hori hogeita hamaseigarren xedapen gehigarrian aurreikusitako dago, eta TicketBAI kenkari gisa ere da ezaguna. Horrek esan nahi du haren aplikazioa 2023ko abenduaren 31ra arte luzatzen dela zerga honetan. Era berean, arrazoi beragatik aldatu egiten da Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauko hogeita bigarren xedapen gehigarrian jasotzen den TicketBAI kenkaria.

Sozietateen gaineko zergari dagokionez, lehenengo aldaketak ondare sozietateei eragiten die, eta haren xedea da ondasun higiezinaren kontsiderazioa doitzea, ondasun horiek edo haien gaineko eskubide errealeak zergaren foru arauaren 42. artikuluan aipatzen diren pertsona edo entitate lotuen artean edo Merkataritza Kodearen 42. artikuluko baldintzetan eraturako talde bateko pertsona edo entitateen artean lagatzen edo erutzen direnean, sozietate bat ondare sozietatetzat hartzeari begira.

Zuzendu egiten da kapitala ekarpenak itzuliz murrizten den kasuetan aplikatzen den balorazio erregelara. Izan ere, itzulketa horietan sortutako errentaren integrazioa jasotako elementuen merkaturako balioaren eta partaidetzaren balio fiskalaren arteko aldeari lotzen zaio orain, ez da kontuan hartzen kontabilitate balioa.

Enpresen kapitalizazioa handitu eta pandemiak ekarritakoa bezalako krisi egoerei errazago aurre egin ahal izateko, hobe-kuntzak ezartzen dira bai enpresen kapitalizazioa sustatzeko konpentsazioaren araubidean bai mozkinak nibelatzeko erre-serba bereziaren araubidean. Lehenengo kasuan, zerga ondorioetarako aintzat hartzen den ondare garbiaren gehikuntza kengarria 100eko 10etik 100eko 15era igotzen da oro har, aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Mikroenpresen eta enpresa txikien kasuan, 100eko 14tik 100eko 20ra igotzen da kenkaria. Bigarren kasuan, erreserbaren saldoak zerga ondorioetarako ondare garbiarekiko izan dezakeen muga 5 puntu handitzen da (100eko 20tik 25era pasatzen da muga arrunta, eta, 100eko 25etik 30era mikroenpresen eta enpresa txikien kasuan). Gainera, azken erreserba horren kasuan, aplikatzeko denbora tartea bost urtetik hamar urtera zabaltzen da, ziklo ekonomikoekin bat etorritik, eta aipatutako epean aurreikusitako helbururako aplikatu ez diren erreserbako zuzkiduren kasuan 100eko 10etik 30era igotzen da zuzenketa positiboaren portzentajea.

Ingurumena hobetzeko eta klima aldaketari aurre egiteko proiektuen alde egite aldera, hobetu egiten da garapen jasangarria, ingurumenaren Kontserbazioa eta hobekuntza eta energia iturrien aprobetxamendu eraginkorragoa bultzatzea xede duten proiektuen inbertsio eta gastuengatik aplikatzen den kenkariaren tratamendua. Izan ere, kuota likidoaren gehieneko kenkaria

Con el propósito de impulsar las fuentes de energía verde y tratar así de coadyuvar a revertir el cambio climático, se establece en este impuesto una nueva deducción por inversiones para el suministro de energía eléctrica solar en la vivienda habitual de la o del contribuyente. Son objeto de esta deducción las inversiones efectuadas en la adquisición de elementos completos aptos para la producción de energía eléctrica solar fotovoltaica, o de participaciones en entidades cuyo objeto social principal sea el aprovechamiento de fuentes de energía eléctrica solar fotovoltaica, para el suministro de energía a la vivienda habitual de la o del contribuyente. La deducción se cifra en un 15 por 100 de las inversiones efectuadas, y la suma de las deducciones practicadas por cada contribuyente durante los sucesivos periodos impositivos no podrá superar la cifra de 3.000 euros.

Se modifica la regulación de la deducción para el fomento de la implantación de un sistema informático que garantice la integridad, conservación, trazabilidad, inviolabilidad y remisión de los ficheros que documenten las entregas de bienes y prestaciones de servicios, comúnmente conocida como deducción TicketBAI, prevista en la disposición adicional trigésimo sexta, para ajustarla a la modificación del calendario de implantación que se ha efectuado a través de la Orden Foral 608/2021, de 9 de noviembre, por la que se modifica el calendario de implantación de la obligación TicketBAI y se exige de su cumplimiento a determinadas personas físicas en edad cercana a la de su jubilación. Ello supone ampliar su aplicación hasta el 31 de diciembre de 2023 en este impuesto. Igualmente, por el mismo motivo se modifica la deducción TicketBAI, prevista en la disposición adicional vigesimosegunda de la Norma Foral del Impuesto sobre Sociedades.

En relación con el impuesto sobre sociedades, la primera modificación afecta a las sociedades patrimoniales, y tiene por objeto ajustar la consideración de los bienes inmuebles que sean objeto de cesión o de constitución de derechos reales que recaigan sobre los mismos, entre personas o entidades vinculadas a que se refiere el artículo 42 de la norma foral del impuesto o que formen parte de un grupo en aplicación de los dispuestos en el artículo 42 del Código de Comercio, a los efectos de determinar la consideración de patrimonial de la sociedad.

Se corrige la regla de valoración en los supuestos de reducción de capital con devolución de aportaciones, al vincularse la integración de la renta generada en tales devoluciones a la diferencia entre el valor de mercado de los elementos recibidos respecto al valor fiscal de la participación, en vez de respecto al valor contable.

En aras a conseguir una mayor capitalización de las empresas para que puedan afrontar más fácilmente situaciones de crisis como la derivada por la pandemia, se implementan mejoras en los regímenes de la compensación para fomentar la capitalización empresarial y de la reserva especial para nivelación de beneficios. En el primer caso, se aumenta del 10 al 15 por 100 el importe deducible del incremento del patrimonio neto a efectos fiscales respecto al del ejercicio anterior con carácter general. Para el caso de microempresas y pequeñas empresas la deducción se incrementa del 14 al 20 por 100. En el segundo caso, se incrementa en 5 puntos el límite de saldo de la reserva respecto al patrimonio neto a efectos fiscales (del 20 al 25 por 100 el límite ordinario y, en consecuencia, del 25 al 30 por 100 en el caso de microempresas y pequeñas empresas). Además, en el caso de esta última reserva se amplía de cinco a diez años el horizonte temporal para su aplicación, haciéndolo coincidir con los ciclos económicos, y se incrementa del 10 al 30 por 100 el porcentaje de la corrección positiva en el caso de dotaciones a la reserva no aplicadas en el citado plazo a la finalidad prevista.

Con el propósito de favorecer los proyectos vinculados con la mejora del medio ambiente y revertir el cambio climático, se mejora el tratamiento de la deducción por inversiones y gastos vinculados a proyectos que procuren el desarrollo sostenible, la conservación y mejora del medio ambiente y el aprovechamiento más eficiente de fuentes de energía, al incrementarse su lí-

100eko 50era igotzen da, orain arte 100eko 35ekoa izan deanean. Muga berri hori benetan aplikatu ahal izan dadin, gainera, beharrezkoa da gutxieneko tributazio arauak egokitzea kenkari horri dagokionez.

Berrikuntza teknologikoaren eta software aurreratuaren kontzeptuak aldatzen dira, haien definizioak Osloko Eskuliburu berriaren arabera zabaltzeko. Bestalde, aipatzen da zer gastu ez diren ikerketa eta garapen jarduerengatik eta berrikuntza teknologikokoengatik aplikatzen diren kenkarien oinarriaren parte.

Enplegua sortzeagatik egiten den kenkarian bi aldaketa sartzen dira. Alde batetik, urteko soldata gordinarekiko proportzionala den gehieneko kenkariaren ordez (5.000 eurokoa) 7.000 euroko zenbateko finkoa duen kenkaria ezartzen da; eta horrek, aldi berean, berekin dakar lan merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten kolektiboetako pertsonak kontratatzeagatik aplikatzen den kenkariak ere zenbateko finko bat izateko, kasu honetan 14.000 eurokoa. Bestetik, ezartzen da lan merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten kolektiboak zeintzuk diren erregelamendu bidez garatuko dela. Eta erregelamenduzko garapen hori onartzen ez den bitartean, foru arau honen xedapen iragankor bakarrak aurreikusten du kolektibo horiek Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen araudiaren arabera zehaztuko direla, hura baita aldaketa hau egin aurretik indarrean zegoen araudia.

Arrisku kapitaleko sozietate eta funtsen araubide berezian, ondoren adierazten diren bi berrikuntza hauek sartzen dira. Alde batetik, aurreikusten da akzio bihur daitezkeen obligazioen bihurketan sozietate edo funts horietarako agerian jartzen den errenta geroratu daitekeela akzio horiek eskualdatu arte. Horrela, ezartzen da bihurketatik eratorritako errenta ez dela integratuko zerga oinarrian, eta arrisku kapitaleko entitateak harpidetutako akzio berriek obligazio bihurgarrien eskurapen balioa eta data gordetzen dituztela. Era horretan, obligazioen jabetza eta, ondorioz, akzioen edukitza egitate bakar eta linealtzat hartzen dira zerga ondorioetarako, eta bihurketak ez du distorsiorik eragiten zentzu horretan.

Bestalde, mikroenpresa, enpresa txiki edo enpresa ertainizat hartzen diren entitateen finantzaketa iturriak errazte aldera, berezitasun bat aurreikusten da horrelako entitateek arrisku kapitaleko funts eta sozietateekin formalizatzen dituzten finantza kontratueterako, haien ordainsariak bi osagai dituenen: diruzko zati bat eta gauzazko beste bat, azken hori entitate finantzatuaren akzio edo partaidetzak erosteko eskubide moduan eratu. Tratamendu fiskal hori aplikatu ahal izateko, alderdi guztiek haren aplikazioa hautatu behar dute, eta aukera hori Ogasun eta Finantza Departamentuari jakinarazi behar diote ondorioak izan behar dituen lehen zergaldia amaitu baino lehen.

Konsolidazio fiskaleko araubide berezia osatze aldera, entitateak talde fiskalean sartu edo taldetik irteetan sortzen diren partida fiskal batzuen tratamendua argitzen da.

Ikus-entzunezko industriaren jarduera sustatzeko, handitu egiten da bai kenkari aplikagarriaren portzentajea eta bai kenkariaren gehieneko zenbatekoa; gainera, aurreko erregelazioan haren aplikaziori buruz ezartzen ziren zenbait muga murrizten dira. Laguntza araubide hau Europako Batzordeari jakinarazteko obligaziotik salbuetsita dago, eta bateragarria da barne merkatuarekin Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. artikuluko 3. apartatuaren arabera, Europako Batzordearen ekainaren 17ko 651/2014/EB Erregelamenduari 54. artikuluko eta I. kapituluko baldintza guztiak betetzen dituelako. Erregelamendu horren bidez, laguntza kategoría jakin batzuk bateragarritzat jotzen dira barne merkatuarekin, Tratatuaren 107. eta 108. artikuluko aplikatuz.

Xedapen gehigarri bat gehitzen zaio foru aruari, hogeita hiru garrena, honako hau argitze aldera, alegia, zerga araudiak ezar-

mite de deducción sobre la cuota líquida, que pasa a ser del 50 por 100 frente al 35 por 100 vigente hasta el momento. Para que este nuevo límite pueda resultar de aplicación efectiva, además, resulta necesario adecuar las reglas de tributación mínima en relación con esta deducción.

Se modifican los conceptos de innovación tecnológica y software avanzado, al objeto de ampliar las definiciones en base al nuevo Manual de Oslo. Por otro lado, se citan algunos gastos que no forman parte de la base de las deducciones por actividades de investigación y desarrollo, y por actividades de innovación tecnológica.

Se introducen dos modificaciones en la deducción por creación de empleo. Por una parte, se sustituye la deducción proporcional al salario anual bruto con límite de 5.000 euros por una deducción de cuantía fija de 7.000 euros; y ello conlleva, a su vez, que la deducción por contratación de personas incluidas en alguno de los colectivos de especial dificultad de inserción en el mercado de trabajo pase también a ser una cuantía fija, en este caso de 14.000 euros. Por otra parte, se remite a desarrollo reglamentario la determinación de los colectivos de especial dificultad de inserción en el mercado de trabajo. Y en tanto no se apruebe dicho desarrollo reglamentario, la disposición transitoria única de esta norma foral prevé que dichos colectivos se determinarán con arreglo a lo dispuesto en la normativa vigente en la Comunidad Autónoma del País Vasco, que constituye la regulación vigente con anterioridad a esta modificación.

En el régimen especial de sociedades y fondos de capital-riesgo, se incluyen las dos novedades que se indican a continuación. Por una parte, se prevé el diferimiento de la renta que se ponga de manifiesto para dichas sociedades o fondos en la conversión de obligaciones convertibles en acciones hasta la transmisión de estas últimas, al establecer que no se integra en la base imponible la renta derivada de la conversión y que las nuevas acciones suscritas por la entidad de capital-riesgo conservan el valor y la fecha de adquisición de las obligaciones convertibles de las que proceden. De este modo, la posesión de las obligaciones y la consiguiente tenencia de las acciones son consideradas como un hecho único y lineal a efectos fiscales, sin que el hecho de la conversión suponga una distorsión en este sentido.

Por otra parte, con el objeto de facilitar las posibles fuentes de financiación de las entidades que tengan la consideración de microempresa, pequeña o mediana empresa, se prevé una especialidad para los contratos de financiación formalizados por estas entidades con fondos y sociedades de capital-riesgo, cuya retribución se componga de una parte dineraria y otra en especie en forma de derechos de compra de acciones o participaciones de la entidad financiada. Para poder aplicar este tratamiento fiscal, todas las partes deberán optar por su aplicación, comunicando dicha opción al Departamento de Hacienda y Finanzas antes de la finalización del primer periodo impositivo en el que deba surtir efectos.

Se completa el régimen especial de consolidación fiscal, aclarando el tratamiento de diferentes partidas fiscales surgidas en el tránsito de entrada o salida de entidades del grupo fiscal.

Con el fin de fomentar la actividad de la industria audiovisual se incrementan el porcentaje de deducción aplicable y el importe máximo de deducción; además, se reducen determinadas limitaciones establecidas en la regulación anterior respecto a su aplicación. Este régimen de ayudas se halla exento de notificación a la Comisión Europea y es compatible con el mercado interior con arreglo al artículo 107, apartado 3 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea, al cumplir todos los requisitos del artículo 54 y del Capítulo I del Reglamento (UE) núm. 651/2014 de la Comisión Europea, de 17 de junio, por el que se declaran determinadas categorías de ayudas compatibles con el mercado interior en aplicación de los artículos 107 y 108 del Tratado.

Se añade una disposición adicional, la vigesimotercera, para aclarar que en las deducciones recogidas en la normativa tribu-

tzen badu araututa dauden kenkariak foru arau horren 67. artikuluan aurreikusitako mugen edo arau komunen mende daudela, zehaztaperen gehiagorik gabe, kenkari horiek 100eko 35eko muga orokorrari lotuta geratzen direla, espresuki besterik esaten ez bada.

Azkenik, zergaren foru arauari hogeita bederatzigarren xedapen iragankorra gehitzen zaio, eta haren helburua da zergaren foru araudira ekartzea kapital aldakorreko inbertsio sozietate jakin batzuetako bazkideek (SICAV izenez ere ezagutzen diren horietako zenbaitetako bazkideek) estatuan aplikatu behar duten araubide iragankorra. Araubide hori onartzearen arrazoia da, alde batetik, lurralde erkidean betekizun objektibo fiskal murriztaileagoak ezarri direla entitate horietako bazkideentzat, eta, bestetik, entitate horiek badutela desegín eta likidatzeko erabakia hartzea. Izan ere, entitateen desegíte eta likidazio horretan, bai likidatzen den sozietateak eta bai bertako bazkideek araubide iragankor bat dute aplikagarria lurralde erkidean. Hala ere, araubide hori osatu gabe geratzen da bazkideak Gipuzkoako pertsonak edo entitateak direnean, haiek ez baitaude lurralde erkideko araudiaren mende, eta horrek distortsioak eragiten ditu zerga ordaintzetan. Hori dela eta, araubide iragankorra egokitzen da entitate horietako pertsona eta entitate bazkideak Gipuzkoarrak diren kasurako.

Ondarearen gaineko zergan, Euskal Kultur Ondarea osatzen duten ondasunen salbuespenen erregulazioa maiatzaren 9ko 6/2019 Legean aurreikusitako erregulazio berrira egokitzen da. Erregulazio berri horren arabera, zergan salbuespena egongo dira Euskal Kultur Ondarean babes ertain edo bereziko kultur ondasun gisa sartuta dauden ondasunak.

Bestalde, arte-gaien eta zaharkinen salbuespena egokitzen da, Espainiako Ondare Historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legearen erregelamenduzko garapenean aurreikusitako balioei soilik aplikatzeko; izan ere, aipatutako 6/2019 Legeak, berak indargabetutakoak ez bezala, ez du horri dagokionez xedapen baliokiderik jasotzen.

Museoei edo irabazi-asmorik gabeko erakundeei jendaurrean erakusteko eta gordailu iraunkorrean lagatzen zaizkien artelanei eta zaharkinei dagokienez, salbuespen hori entitateetako partaidetzei dagokienez ere ezartzen da; salbuespen hori lagatuko artelanei eta zaharkinen balioaren eta entitatearen aktibo osoaren arteko proportzioari aplikatuko zaio. Gainera, lagatuko artelan eta zaharkin horiek ez dira hartuko jarduera ekonomikoei atxiki gabeko ondasuntzat, lagatuko objektuen titulartasuna duten entitateen kapital edo ondareko partaidetzei salbuespena aplikatzeko baldintzak betetzearen ondorioetarako.

Lurraldeko enpresa sarean berrikuntza garatzen jarraitzeko eta langileen parte hartzeak ere jarraipena izateko, ezartzen da sorrera berriko entitate berritzaileen akzio eta partaidetzen gaineko aukera eskubideak entitate horietako langileek jasotzen dituztenean salbuespena geratzen direla, 2021erako zerga aldaketa jakin batzuk onesten dituen apirilaren 15eko 3/2021 Foru Arauan egindako aldaketarekin bat etorritik.

Salbuespenak ukitutako entitateen kapital edo ondare partaidetzen balioaren proportzioa kalkulatzeko, gerora etorritako ondaretasuna hartzen da kontuan. Erregela hori, salbuespenaz gozatzeko jada aurreikusita dagoena, haren irismenari dagokionez ere arautzen da orain. Horrela, salbuespen hori entitatearen ondare elementuei dagokien akzio edo partaidetzen balioaren zati ere iritsiko da, baldin akzio horien eskurapen prezioak ez bada gainditzen entitateak lortu dituen mozkin banatu gabeen zenbatekoa, betiere mozkin horiek jarduera ekonomikoei atxiki gabeko badatuz. Urtean bertan eta aurreko hamar urteetan lortutako mozkinen zenbatekoa izango da muga.

taria cuya regulación establezca su sometimiento a los límites o normas comunes previstas en el artículo 67 de dicha norma foral, sin mayor especificación, quedan sujetas al límite general del 35 por 100, salvo que expresamente se diga otra cosa.

Por último, se incorpora a la norma foral del impuesto la disposición transitoria vigesimonovena, en la que se incorpora a la normativa foral del impuesto el régimen transitorio aplicable a nivel estatal por las socias y socios de determinadas sociedades de inversión de capital variable de territorio común, las comúnmente conocidas SICAV. La aprobación de dicho régimen viene motivada, por un lado, por el establecimiento en territorio común de requisitos objetivos de carácter fiscal más restrictivos a las socias y los socios de dichas entidades y la posibilidad de éstas de acordar su disolución y liquidación. Pues bien, esta disolución con liquidación, en territorio común está sujeta a un régimen transitorio tanto para la sociedad que se liquida como para sus socias y socios. No obstante, el mismo queda incompleto en el caso de que las personas o entidades socias sean guipuzcoanas, puesto que no quedan sometidas a la normativa de territorio común, y ello genera distorsiones en la tributación. Por ello, se adecua el régimen transitorio para las personas y entidades socias guipuzcoanas de las citadas entidades.

En el impuesto sobre el patrimonio, se adecúa la regulación de las exenciones de los bienes integrantes del Patrimonio Cultural Vasco a la nueva regulación prevista en la Ley 6/2019, de 9 de mayo. En atención a dicha nueva regulación, estarán exentos del impuesto los bienes que integran el Patrimonio Cultural Vasco en calidad de bienes culturales de protección media o especial.

Por otra parte, se ajusta la exención de los objetos de arte y antigüedades quedando ésta vinculada en exclusiva a los valores previstos reglamentariamente en desarrollo de la Ley 16/1985, de 25 de junio, del Patrimonio Histórico Español, toda vez que la citada Ley 6/2019, a diferencia de la derogada por ella, no contiene ninguna disposición equivalente.

Con respecto a los objetos de arte y antigüedades cedidos en depósito permanente a museos o instituciones culturales sin fin de lucro para su exhibición pública, se establece dicha exención también respecto a las participaciones en entidades, exención que alcanzará a la proporción del valor de los objetos de arte y antigüedades cedidos respecto al activo total de la entidad. Además, estos objetos de arte y antigüedades cedidos no computarán como bienes no afectos a actividades económicas, a los efectos del cumplimiento de las condiciones exigidas para determinar la aplicabilidad de la exención a las participaciones en el capital o patrimonio de las entidades que detentan la titularidad de dichos objetos cedidos.

Al objeto de continuar desarrollando la innovación en el tejido empresarial del territorio y de la participación de los trabajadores en el mismo, se establece la exención de los derechos de opción sobre acciones y participaciones de entidades innovadoras de nueva creación recibidos por personas trabajadoras de las mismas, en línea con la modificación introducida en la Norma Foral 3/2021, de 15 de abril, por la que se aprueban determinadas modificaciones tributarias para el año 2021.

Se incluye la consideración de la patrimonialidad sobrevenida en el cálculo de la proporción del valor de las participaciones en el capital o patrimonio de entidades a las que alcanza la exención. Esta regla, ya prevista para el acceso a la exención, se regula ahora con respecto al alcance de la misma. De esta manera, la exención alcanzará también a la parte del valor de las acciones o participaciones que se corresponda con aquellos elementos patrimoniales de la entidad cuyo precio de adquisición no supere el importe de los beneficios no distribuidos obtenidos por la entidad, siempre que dichos beneficios provengan de la realización de actividades económicas, con el límite del importe de los beneficios obtenidos en el propio año y en los últimos diez años anteriores.

Azkenik, sozietateen gaineko zergan ondare sozietateetarako egindako aldaketarekin bat etor dadin, egokitu egiten da ondasan higiezinekin zer ikusia duten partaidetzen salbuespenaren irismena.

Orain arte aipatutako hiru zergen ohar amankomun gisa, esan behar da eguneratu egiten direla zerga horien foru arautan balore merkatuei egiten zaizkien erreferentziak. Negoziazio sistema aldeaniztunak gero eta garrantzi handiagoa izaten ari direlako gertatzen da hori. Aldaketa horien bitartez, koherentzia ematen zaio balore merkatuen zerga erregulazioari.

Kooperatiben zerga araubidearen esparruan, bertan sartzen diren aldaketetako asko Euskadiko Kooperatibei buruzko abenduaren 20ko 11/2019 Legea onartzearen eta Euskadiko Kooperatibei buruzko ekainaren 24ko 4/1993 Legea eta Euskadiko Kooperatiba Sozietate Txikiei buruzko ekainaren 25eko 6/2008 Legea indargabetzearen ondorio dira. Legegintzan izan den berritasun horrek beharrezko egiten du kooperatiben zerga araudia egokitzea eta bertan hainbat doikuntza egitea kooperatiben araudi substantibo berria eta haien zerga tratamendua bateragarri egiteko.

Hala, lan elkartuko eta ustiapen komunitarioko kooperatiba txikiak bereziki babestuzat jotzeko beharkizuna abenduaren 20ko 11/2019 Lege horretan besteren konturako langileak kontratatzeke aurreikusitako mugetara egokitzen da.

Bestalde, argitzen da nekazaritza ustiategien titulartasun partekatuari buruzko urriaren 4ko 35/2011 Legean aurreikusten diren titulartasun partekatuko entitateak bereziki babestutako nekazaritza eta elikagaigintzako kooperatibetako bazkide izan daitezkeela.

Etxebizitza kooperatibak bereziki babestuzat jotzeari dagokionez, doikuntzak egiten dira kontsiderazio hori mota horretako kooperatiben araudi substantibo berrira egokitzeke: alde batetik, zerga eremuan ere onartzen da kooperatibistak ez diren hirugarrenei etxebizitzaren 100eko 30eraino saldu ahal izatea finantza arrazoiengatik, eta, bestetik, kooperatiba desegiteko atalaseari buruzko baldintzak atalase handiago bat aurreikusten du baldin eta ezkutuko akatsei entitate sustatzaile gisa erantzuteke aurreikusitako berme epeak eta legezko epeak, edo estatutuek edo entitate publikoekin sinatutako lankidetzazko hitzarmenek, hala aurreikusten badute.

Kooperatibak entitate ez-kooperatiboen kapital sozialean parte hartzeagatik fiskalki babestutako kooperatibaren izaera galtzeko erregulazioan, zehazten da nola kuantifikatu behar den partaidetza hori, holding sozietateen bidez gauzatzen denean. Aldaketa hori foru arau hau indarrean jarri ondoren egiten diren partaidetza eskurapenei aplikatuko zaie, Kooperatiben Zerga Erregimenari buruzko maiatzaren 22ko 2/1997 Foru Arauari gehitzen zaion bigarren xedapen iragankorrari jarraituz.

2021. urterako zerga aldaketa jakin batzuk onesten dituen apirilaren 15eko 3/2021 Foru Arauan aipatu gabe utzi zen ñabardura bat sartzen da oraingo foru arauan, eta helburua da argitzea ezen kooperatibetan partaidetza bereziak ordaintzera bideratutako kopuruak ez direla kengarriak izango haien titularrak kooperatibetako bazkide edo elkartekide ez badira, partaidetza horiek kapital sozialtzat hartzen direnean.

Aldaketak sartzen dira sozietateen gaineko zergari lotutako entitate bazkideek jasotako kooperatiba itzulkinen zergapetze bikoitza ezabatzeko erregulazioan, eta, horrela, kuotan kenkaria aplikatu beharrean itzulkinak zerga oinarrian ez integratzea ezartzen da; horrekin homogeneizatzen da zergapetze bikoitzak sozietateen gaineko zergan duen tratamendua, eta gainerako lurralde historikoekin harmonizatzen da.

Por último, se ajusta el alcance de la exención de las participaciones que se corresponden con bienes inmuebles, en coherencia con la modificación introducida en el impuesto sobre sociedades para las sociedades patrimoniales.

Como nota común a los tres impuestos hasta ahora citados, se ha procedido a actualizar las referencias a los mercados de valores existentes en las normas forales de dichos impuestos. Esto se debe a la irrupción, cada vez más significativa, de los sistemas multilaterales de negociación. A través de estas modificaciones, se da coherencia a la regulación tributaria en lo que afecta a los diferentes mercados de valores.

En el ámbito del régimen fiscal de las cooperativas, una buena parte de las modificaciones que se registran están motivadas por la aprobación de la Ley 11/2019, de 20 de diciembre, de Cooperativas de Euskadi, y la derogación de las Leyes 4/1993, de 24 de junio, de Cooperativas de Euskadi y 6/2008, de 25 de junio, de la Sociedad Cooperativa Pequeña de Euskadi. Esta novedad legislativa requiere una adecuación de la normativa fiscal de las cooperativas y la introducción de ajustes para compatibilizar la nueva normativa sustantiva de las cooperativas y su tratamiento tributario.

Así, se acomoda la consideración de especialmente protegida relativa a las cooperativas pequeñas de trabajo asociado y de explotación comunitaria, a los límites respecto a la contratación de personas trabajadoras por cuenta ajena previstas en dicha Ley 11/2019, de 20 de diciembre.

Por otra parte, se aclara que las entidades de titularidad compartida previstas en la Ley 35/2011, de 4 de octubre, sobre titularidad compartida de las explotaciones agrarias, pueden ser socias de las cooperativas agrarias y alimentarias especialmente protegidas.

Se adecúa la consideración de especialmente protegidas de las cooperativas de vivienda para ajustarse a la nueva regulación sustantiva de este tipo de cooperativas: por una parte, se asume también en el ámbito tributario la posibilidad de la venta de hasta un 30 por 100 de las viviendas a terceros no cooperativistas por razones financieras, y por otra, el requisito relativo al umbral para la disolución de la cooperativa recoge la previsión de un umbral superior cuando el plazo de garantía y el legal previsto para responder de los vicios ocultos como entidad promotora, o los estatutos o convenios de colaboración suscritos con entidades públicas así lo prevean.

En la regulación de la pérdida de la condición de cooperativa fiscalmente protegida por participar la cooperativa en el capital social de entidades no cooperativas, se especifica la forma de cuantificar dicha participación cuando la misma se realiza a través de sociedades holding. Esta modificación es de aplicación para las adquisiciones de participaciones efectuadas a partir de la entrada en vigor de la presente norma foral, con arreglo a la disposición transitoria segunda que se incluye en la propia Norma Foral 2/1997, de 22 de mayo, sobre Régimen Fiscal de las Cooperativas.

Se incluye una matización que se omitió por error en la Norma Foral 3/2021, de 15 de abril, por la que se aprueban determinadas modificaciones tributarias para el año 2021, por la cual se aclara que las cantidades destinadas a retribuir participaciones especiales en las cooperativas, cuyas titulares no sean personas socias o asociadas de las mismas, no tendrán la consideración de deducibles cuando éstas tengan la consideración de capital social.

Se modifica la regulación relativa a la eliminación de la doble imposición de retornos cooperativos percibidos por parte de entidades socias sometidas al impuesto sobre sociedades, sustituyendo la deducción en la cuota por la no integración en la base imponible, de manera que se homogeneiza el tratamiento de la doble imposición en el impuesto sobre sociedades y se armoniza con el resto de Territorios Históricos.

Bestalde, Euskal Kultur Ondarea osatzen duten ondasunek maiatzaren 9ko 6/2019 Legean duten erregulazio berrira egokitzeko bai apirilaren 7ko 3/2004 Foru Araua, irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriei buruzkoa, bai uztailaren 5eko 12/1989 Foru Araua, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzkoa. Gainera, azken foru arau horri dagokionez, arrazionalizatu egiten da sektore publikoko entitateek katastroko informazio babestua eskuratu ahal izateko prozedura, haien gainetik dagoen Administrazioaren bitartez egin behar izan ez dezaten.

Jarduera ekonomikoaren gaineko zergan, talde berri bat sortzen da zergaren tarifetako bigarren sekzioan, kazetariak eta informazioaren eta komunikazioaren beste profesional batzuek egiten duten jarduera berriaz sailkatzeko. Izan ere, orain arte jarduera horrek ez zuen halako sailkapenik. Horrez gain, beste bi aldaketa egiten dira, teknikoak biak.

Zergen Foru Arau Orokorren esparruan, ahalbidetzen da ordainketak geroratu eta zatikatzeko prozedura ebazteko ohiko epea luzatzea, tasatuta dauden zirkunstantzia jakin batzuek prozedura hori ebaztea eragozten dutenean. Aurreikusitako zirkunstantzietako bat gertatzen denean, epea hamabi hilabetez luzatu ahal izango da gehienez.

Jarduera ekonomikoaren jarraipena errazteko eta enplegua suntsitzea saihesteko, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua, Zerga Administrazioako organo gorena den aldetik, gaituta geratzen da gerorapenak ebazteko, baldin eta, jarduera ekonomikoaren produkzio ahalmenari edo enplegu mailari nabarmen eragiteagatik edo Ogasun Publikoaren interesei kalte larriak sortzeagatik, gerorapen horiek eman behar badira zordunaren aldeko kredituekin ofizioz konpentsatu gabe, betiere zerga zorra epe exekutiboan dagoenean.

Informazioa emateko betebeharrak ezartzen da akzioen azken onuradunen identifikazioa ezagutzen duten edo ezagutzeko moduan dauden pertsona eta entitateentzat, apirilaren 12ko 5/2021 Legeak sartu duen aldaketaren ildotik (5/2021 Legea, apirilaren 12koa, zeinaren bidez aldatzen baitira Kapital Sozietateen Legearen testu bategina, uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia, eta finantza arloko beste arau batzuk, sozietate kotizatuetan akziodunek epe luzera inplikatzeko sustatzeari dagokionez).

Atzerriko ondasun eta eskubideei buruz informatzeko betebeharrari dagokionez, zerga arloko arau-hausteen zehapen araubidea argitzen da.

Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan beste salbuespen objektibo bat sartzen da, azaroaren 2ko 24/2021 Errege Lege-Dekretuan araututa dauden bonu bermatuak, hipoteka partaidetzak eta hipoteken eskualdaketa buruzko ziurtagiriak jaulki, eskualdatu, amortizatu eta itzultzeari dagokionez. Errege lege-dekretu horren bidez, Europar Batasunaren zuzentarauen transposizioa egiten da honako gai hauetan: bonu bermatuak, inbertsio kolektiboko erakunde mugaz gairako banaketa, datu irekiak eta sektore publikoaren informazioaren berrerabilera, lineako zenbait eskualdaketa eta irriti eta telebista bidezko programen emanaldietan aplikatzeak diren egile eskubideak eta horien kidekoak erabiltzea, inportazio eta hornidura jakin batzuen aldi baterako salbuespenak, pertsona kontsumitzaileak, eta errepide bidezko garraio ibilgailu garbi eta energetikoki efizienteen sustapena. Salbuespen horren barruan sartzen dira, halaber, entitate jaulkitzailea konkurtso egoeran sartzen den kasurako aurreikusten den ondare bereizia eratzeko aktiboen eskualdaketa, eta jaulkipenak batera finantzatzeko asmoz beste kreditu entitate baten alde egiten den mailegu eskualdaketa, biak ere aipatutako 24/2021 Errege Lege-Dekretuan arautuak.

Hiri-lurren balio gehikuntzaren gaineko zergan, ikusi da zerga oinarriaren kuantifikazioa nabarmen murriztu dela hura kalkulatzeko metodologian duela gutxi sartu den aldaketagatik. Hain zuzen ere, aldaketa hori azaroaren 16ko 7/2021 Foru Dekretu-

Por su parte, se adecúan a la nueva regulación de los bienes integrantes del Patrimonio Cultural Vasco prevista en la Ley 6/2019, de 9 de mayo, tanto la Norma Foral 3/2004, de 7 de abril, de régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos y de los incentivos fiscales al mecenazgo, como la Norma Foral 12/1989, de 5 de julio, del Impuesto sobre Bienes Inmuebles. Además, por lo que respecta a esta última norma foral, se racionaliza el procedimiento para que las entidades que integran el sector público accedan a la información catastral protegida, sin tener que hacerlo a través de la Administración de quien dependan.

En el impuesto sobre actividades económicas se crea un nuevo grupo en la sección segunda de las Tarifas del impuesto para clasificar de forma específica la actividad ejercida por periodistas y otros profesionales de la información y la comunicación, que hasta la fecha carecía de tal clasificación. Además, se introducen otras dos modificaciones meramente técnicas.

